



2024KO URTEKO ARAUGINTZA PLANA GAUZATZEARI BURUZKO MEMORIA **MEMORIA DE EJECUCIÓN DEL PLAN ANUAL NORMATIVO DEL AÑO 2024**

2024ko otsailaren 20an, Eusko Jaurlaritzak 2024ko Urteko Araugintza Plana (UAP) argitaratzeko erabakia hartu zuen.

Erabakiak laugarren atalean ezartzen du Jaurlaritzako sailek beren araudi-plangintza gauzatzeari buruzko memoria bat egingo dutela, eta Koordinazioak eta Gizarte Komunikazioak Nagusiari (egun, Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen Idazkaritza Nagusia) bidaliko diotela, 2024ko Urteko Araugintza Planaren exekuzioari buruzko memoria publiko egiteko 2025eko lehen hiruhilekoan.

Halaber, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8. artikuluko 5. paragrafoaren arabera, Administrazio Orokorreko sailek, urteko araugintza-plan berri bat onartu aurretik, bakoitzak bere araugintza-plangintzaren gauzatze-memoria bat landu eta jakinaraziko dio Gobernuari.

2024ko Urteko Araugintza Planaren egikaritze-memoria hau sailek beren arau-plangintzen gauzatzeari buruz emandako informazioarekin osatzen da, eta bi eranskinen bitartez aurkezten da.

I. eranskinak informazio kuantitatiboa jasotzen du, 2024ko UAPa osatzen duten lege-aurreproiektuen eta dekretu-proiektuen zenbakiari buruzkoa, sailka antolatuta: onartutakoak; izapidetzen ari direnak; izapidetzen hasi ez direnak; eta onartu ez diren eta 2025eko Urteko Araugintza Plangintzara eramaten diren lege- aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak. Era berean, Urteko Araugintza Planean aurreikusita egon gabe 2024an onartu diren lege-aurreproiektu eta dekretu-proiektuen zenbakia ere jasotzen da.

II. eranskinean, sailka, honako hauek zehazten dira: 2024ko Urteko Araugintza Planean jasotako lege-aurreproiektu eta dekretu-proiektu bakoitzaren izapidetze-egoera, eta 2025eko Urteko Araugintza Planean onartzeke dauden 2024ko araugintza-ekimenak sartzeko aurreikuspena. Era berean, 2024an onartutako lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak zerrendatzen dira, dagokion urteko araugintza-planetik kanpo.

El 20 de febrero de 2024 el Gobierno Vasco adoptó el Acuerdo por el que se aprueba la publicación del Plan Anual Normativo (PAN) correspondiente a ese mismo año.

El Acuerdo establece en su apartado cuarto que los Departamentos del Gobierno elaborarán una memoria de ejecución de su planificación normativa, que será remitida a la Secretaría General de Coordinación y Comunicación Social (actualmente, la Secretaría General de Coordinación y Proyectos Estratégicos), con el objetivo de hacer pública una memoria de la ejecución del Plan Anual Normativo 2024 durante el primer trimestre de 2025.

Asimismo, la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de la Disposiciones de Carácter General, establece en el artículo 8 apartado 5 que “los departamentos de la Administración General elaborarán y comunicarán al Gobierno, antes de la aprobación de un nuevo plan anual normativo, una memoria de la ejecución de su respectiva planificación normativa”.

La presente memoria del Plan Anual Normativo del año 2024 se conforma con la información proporcionada por los Departamentos sobre la ejecución de sus respectivas planificaciones normativas y se despliega a través de dos anexos.

El anexo I contiene información cuantitativa, ordenada por Departamentos, relativa al número de los anteproyectos de ley y de los proyectos de decreto del Plan Anual Normativo 2024 que: han sido aprobados; se encuentran en fase de tramitación; no han sido tramitados; y los anteproyectos de ley y los proyectos de decreto que no se han aprobado y que se trasladan al Plan Anual Normativo 2025. Asimismo, también se recoge el número de anteproyectos de ley y de proyectos de decretos aprobados durante 2024 al margen del Plan Anual Normativo.

El anexo II detalla, por Departamentos: el estado de tramitación de cada uno de los anteproyectos de ley y de los proyectos de decreto incluidos en el Plan Anual Normativo 2024; y la previsión de incluir en el Plan Anual Normativo 2025 las iniciativas normativas del 2024 pendientes de aprobación. Igualmente, se relacionan los anteproyectos de ley y los proyectos de decreto aprobados en 2024 al margen del correspondiente Plan Anual Normativo.



Hortik ondorioztatzen da 2024ko ekitaldian 52 arau onartu direla guztira, horietatik 30 Urteko Arau Planean aurreikusita zeuden, eta planetik kanpo 4 lege-proiektu eta 18 dekretu onartu dira.

A modo de conclusión, de lo anterior se infiere que en el ejercicio 2024 se han aprobado un total de 52 normas, de las que 30 estaban previstas en el PAN 2024, así como 4 Proyectos de Ley y 18 Decretos fuera del mismo.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 13a.

Mikel Iriondo Bilbao

Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari Nagusia
Secretario general de Coordinación y Proyectos Estratégicos

**I. ERANSKINA/ ANEXO 1****BETETZE-MAILA UAP 2024**

Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak

GRADO DE EJECUCIÓN PAN 2024

Anteproyectos de Ley y Proyectos de Decreto

SAILA DEPARTAMENTO	Guztira Total (1+2+3)	Onartutakoak Aprobadas (1)	IzapidetzenEn trámite (2)	Hasi gabeSin iniciar(3)	Onartutako proiektuak 2024koUAPetik kanpo Aprobados al margen del PAN2024 (*) (4)
Lehendakaritza Lehendakaritza	2	0	1	1	1
Kultura eta Hizkuntza Politika Cultura y Política Lingüística	11	3	7	1	1
Ekonomia, Lana eta Enplegua Economía, Trabajo y Empleo	11	4	4	3	1
Hacienda y Finanzas Ogasun eta Finantzak	7	2	4	1	3
Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno. Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua	11	3	8	0	3
Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna Industria, Transición Energética y Sostenibilidad	10	0	8	2	1
Segurtasuna Seguridad	6	4	1	1	2
Hezkuntza Educación	12	3	8	1	1
Etxebizitza eta Hiri Agenda Vivienda y Agenda Urbana	3	1	1	1	1
Osasuna Salud	10	1	4	5	1
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa Bienestar, Juventud y Reto Demográfico	6	1	2	3	2
Mugikortasun Jasangarria Movilidad sostenible	0	0	0	0	1
Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Ciencia, Universidades e investigación	1	0	0	1	2
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa Turismo, Comercio y Consumo	7	1	6	0	0
Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca	14	6	6	2	1
Justizia eta Derechos Humanos Justizia eta Giza Eskubideak	1	1	0	0	1
GUZTIRA TOTAL	112	30	60	22	22

GUZTIRA 2024KO URTEKO ARAUGINTZA PLANEAN ONARTUTAKO ARAUAK (1+4) = 52

(*) Ez zeuden jasota 2024ko Urteko Araugintza Planaren aurreikuspenetan.

TOTAL NORMAS APROBADAS EN 2024 (1+4) = 52

(*) No incluidos en las previsiones del Plan Anual Normativo del año 2024.



II. ERANSKINA

2024ko URTEKO ARAUGINTZA PLANAREN BALANTZEA

0. LEHENDAKARITZA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Kanpoko Euskal Komunitaterako Lege-aurreproiektua			Aldez aurretiko kontsulta publikoa eginda XIII.Legegintzaldiko (2024-2028) Legegintza Programa onartzen duen 2024ko urriaren 1eko Gobernu Kontseiluaren Erabakiak lege- proiektua Gobernu Kontseilura 2026an bidaltzea aurreikusten du.	Ez da sartzen
2	Kanpoko Euskal Komunitaterako laguntza-asistentzialei buruzko Dekretu-proiektua		Hasiera-fasea: Prozedura hasteko dekretua onartuta.		Sartzen da

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Lege-aurreproiektuak eta Dekretu-proiektuak 2024ko UAPetik kanpo		Onartua	Izapidetzen. Egoera	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena	388/2024 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		



1. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta Dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Oinarrizko Babeseko Kultura Ondasunen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa sortzeko dena.		Instrukzio fasea: Tokiko Gobernuen Batzordeari eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari txostenak egitea		Sartzen da
2	DEkretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseiluarena..	54/2024 Dekretua, apirilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseiluarena.			
3	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Balioespenerako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamenduarena	59/2024 Dekretua, maiatzaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Balioespenerako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamenduarena			
4	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistemaren Erregelamendua onartzen duena.		Instrukzio fasea: KEBeren txostena eskatzeko zain.		Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan Lege Gordailua kudeatzeko irailaren 10eko 139/2019 Dekretua aldatzeko dena.		Hasiera fasea: Hasiera Agindua onartu zen		Sartzen da
6	Dekretu-proiektua, kultura-ondasun immaterialen EAEko inbentarioa egiteko prozesuari, egiturari eta eskuragarritasunari buruzkoa.		Amaiera eta onarpen fasea: Behin betiko testua prestatzen		Sartzen da



2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
7	Dekretu-proiektua, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen, urriaren 16ko, 222/2012 Dekretua aldatzen duena.		Instrukzio fasea: aldez aurreko onarpena, txostenak eskatuta.		Sartzen da.
8	Dekretu-proiektua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.	19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.			
9	Dekretu-proiektua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen.		Hasierako fasea: Jendeaurreko aurretiazko kontsultak aurkezteko epea amaituta.		Sartzen da
10	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa ekainaren 30eko 8/2022 Legea garatzen duena.		Instrukzio fasea KEB eko txostena eskatuta.		Sartzen da
11	Dekretu-proiektua, Goi-mailako Kirolari buruzkoa.			Prestaketa fasea: araua idazten eta 2/2023, martxoaren 30eko, Euskal Herriko Jarduera Fisikoaren eta kirolaren Legeari egokitzen.	Sartzen da



2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Lege-aurreproiektuak eta Dekretu-proiektuak 2024ko UAPetik kanpo		Onartua	Izapidetzen. Egoera	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	389/2024 Dekretua, azaroaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		

2. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGU SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Euskadiko kooperatiben erregelamendua onartzen duena.		Instrukzio fasea: alegazioak eta txostenak		Sartzen da
2	Dekretu-proiektua, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzeko dena.			Hasi gabe. Egokitasun-arrazoiek atzeratu egin dute izapidetzearen hasiera.	Sartzen da.
3	Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegu-agentzien artean bitartekotza- eta enplegu-zerbitzua emateko irekitako akordioak arautzen dituen.			Hasi gabe. Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea onartzeak atzeratu egin du proiektuaren prestaketa, lege horretara egokitzeko.	Sartzen da.
4	Dekretu-proiektua, Inklusiorako euskal kontseilua arautzen duena.	307/2024 Dekretua, urriaren 22koa, Inklusiorako Euskal Kontseiluarena.			
5	Dekretu-proiektua, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular eta onuradunentzako enplegurako pizgarriei buruzkoa.		Instrukzio fasea: alegazioak eta txostenak		Sartzen da
6	Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzeko dena.		Amaiara eta onarpen fasea: EABJri irizpena		Sartzen da



			eskatuta		
7	Dekretu-proiektua, inklusiorako erakundearteko batzordea arautzen duena.	5/2024 Dekretua, urtarrilaren 23koa, Inklusiorako Erakundearteko Batzordea arautzen duena.			
8	Dekretu-proiektua, kooperatiben arloko zehapen-prozedura arautzen duena.	12/2024 Dekretua, otsailaren 13koa, Kooperatiben arloko ikuskapenari eta zehapen-prozedurari buruzkoa.			
9	Dekretu-proiektua, 2024ko Urteko Estatistika Programari buruzkoa.	36/2024 Dekretua, martxoaren 26koa, 2024ko Urteko Estatistika Programa onartzen duena.			
10	Dekretu-proiektua, 2025eko Urteko Estatistika Programarena.		Instrukzio fasea: alegazioak eta txostenak.		Sartzen da
11	Dekretu-proiektua, Jaurlaritzako sailen estatistika-organo espezifikoak arautzen dituena.			Hasi gabe. Egokitasun-arrazoiek atzeratu egin dute izapidetzearen hasiera.	Sartzen da

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauak (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025 UAP
1	Dekretu-proiektua, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	323/2024 Dekretua, azaroaren 5koa, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		
2	Dekretu-proiektua, "Juan de los Toyos" lanaren saria arautzeko dena.		Hasiera fasea: Hasierako agindua sinatuta.	Sartzen da



3. OGASUN ETA FINANTZAK SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina.		Amaiera eta onarpen fasea: EABJren fasera arte izapidetuta, proiektua etenda geratu da, 2025eko aurrekontuen Legeak DF4 bat egin eta beste bat egiteko baimena eman duelako.		Sartzen da
2	Dekretu-proiektua, Uraren kanonaren erregelamendua aldatzeko (229/2021 Dekretua, azaroaren 2koa, Uraren Kanonaren Erregelamendua onartzen duena).		Amaiera eta onarpen fasea: EABJren irizpena.		Sartzen da
3	Dekretu-proiektua, Finantzen Euskal Institutuaren estatutuak onartzeko dena.		Amaiera eta onarpen fasea: EABJren Txostena egina.		Sartzen da
4	Dekretu-proiektua, dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena.			Hasi gabe	Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, EAEko higiezinaren kredituko bitartekarien eta higiezinaren mailegu- emaileen baimena eta erregistroa eta horiek gainbegiratzeko eta zehatzeko eginkizunak arautzeko dena.		Amaiera eta onarpen fasea: EABJren irizpena.		Sartzen da
6	Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru- eta berraseguru-banatzailen Administrazio-erregistroa sortu eta arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera gainbegiratzeko dena.	6/2024 Dekretua, urtarrilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru- eta berraseguru-banatzailen Administrazio-erregistroa sortu eta arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera gainbegiratzeko dena.			
7	Proiektu-Dekretua, borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko zenbait dekretu aldatzekoa.	13/2024 Dekretua, otsailaren 13koa, borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko zenbait dekretu aldatzekoa.			



--	--	--	--	--

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauk (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025 UAP
1	Dekretu-proiektua, aurretiazko fiskalizazioa behar duten espedientei dagozkien gastu motaren arabera zenbateko unitarioak finkatzen dituena.		Amaiera eta onarpen fasea: EABJren irizpenaren zain	Sartzen da
2	Dekretu-proiektua, EAEko sektore publikoaren kontratazioaren araubideari buruzko dekretua hirugarren aldiz aldatzekoa.		Amaiera eta onarpenfasea: EABJren irizpenaren zain	Sartzen da
3	EAEko 2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartzen dituen legea aldatzeko lege-proiektua.	5/2024 Legea, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legea aldatzekoa		
4	Lege aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituena	8/2024 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituena		
5	Dekretu-proiektua, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	313/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		

4. GOVERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNU SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Lege-aurreproiektua, euskal ondare-zuzenbidearen arloko berezitasunei eta familia-enpresaren eta ondarearen defentsari buruzkoa.		Amaiera eta onarpen fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzeko zain.		Ez da sartzen
2	Bilboko Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargo Ofiziala desegiteari buruzko Lege-aurreproiektua.	6/2024 Legea, abenduaren 19koa, Bilboko Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargo Ofiziala desegiteari buruzkoa.			
3	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoari buruzkoa.		Instrukzio fasean: izapidetzearen memoria egiteko zain.		Sartzen da
4	Dekretu-Proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeen Erregistroa arautzeko dena.		Hasiera fasean: hasteko agindua onartu da.		Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroaren Erregelamendua onartzeko dena.		Instrukzio fasean: memoria ekonomikoa egin da.		Sartzen da
6	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretua aldatzeko dena.		Amaiera eta onarpen fasea: Txostenak		Sartzen da
7	Dekretu-proiektua, Euskadiko Ingurumen Adituen Elkargo Profesionala sortzeko dena.	Lege-aurreproiektu bidez izapidetu eta onartu da, GKaren 2024ko abenduaren 3ko saioan onartu zen Euskadiko Ingurumen Zientzietako Tituludunen			



		Elkargo Profesionala/Colegio Profesional de Personas Tituladas en Ciencias Ambientales de Euskadi izeneko elkargoa sortzen duen legearen aurreproiektua.			
8	Dekretu-proiektua, Colegio Profesional de Criminología de Euskadi - Kriminologia Euskadiko Elkargo Ofiziala sortzeko dena.	Lege-aurreproiektu bidez izapidetu eta onartu da, GKaren 2024ko abenduaren 23ko saioan onartu zen Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala izeneko elkargoa sortzen duen legearen aurreproiektua.			
9	Dekretu-proiektua, Euskal Administrazioetako funtzionarioen karrera profesional horizontala eta Euskal Sektore Publikoko langileen jarduna ebaluatzeko sistema arautzen dituen.			Prestaketa fasea: Aldez aurreko kontsulta izapidetu da	Sartzen da
10	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko zuzendari publiko profesionalen araubide juridikoa arautzen duena.			Prestaketa fasea: Aldez aurreko kontsulta izapidetu da	Sartzen da
11	Dekretu-proiektua, Euskal administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko eta funtzionarioak hautatzeko araudia onartzen duena.			Prestaketa fasea: Aldez aurreko kontsulta izapidetu da	Sartzen da

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauak (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025eko UAP
1	Lege-aurreproiektua, Euskadiko Ingurumen Zientzietako Tituludunen Elkargo Profesionala/Colegio Profesional de Personas Tituladas en Ciencias Ambientales de Euskadi izeneko elkargoa sortzen duena	GKaren 2024ko abenduaren 3ko saioan onartu zen Lege-proiektua, Euskadiko Ingurumen Zientzietako Tituludunen Elkargo Profesionala/Colegio Profesional de Personas Tituladas en Ciencias Ambientales de Euskadi izeneko elkargoa sortzen duena.		
2	Lege-aurreproiektua, Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala izeneko elkargoa sortzen duen legearen aurreproiektua	GKaren 2024ko abenduaren 23ko saioan onartu zen Lege-proiektua, Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-		



		Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala izeneko elkargoa sortzen duena.		
3	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua aldatzen duena.		Instrukzio fasea: txosten juridikoa eman da	Sartzen da
4	Dekretu-proiektua, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa	317/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		



5. INDUSTRIA, TRANSITZIO ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUN SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, segurtasun industrialaren arloko profesionalen kualifikazioari buruzkoa.		Amaiera eta onarpen fasea: Gobernu Kontseiluari igorrita hark onar dezan.		Sartzen da
2	Dekretu-proiektua, Euskadiko energia berriztagarrien lurralde-plan sektoriala onartzen duena.		Instrukzio fasea: Aldez aurreko onarpen-agindua onartuta .		Sartzen da
3	Dekretu-proiektua, AEM-01 igogailuei buruzko Jarraibide Tekniko Osagarria garatzeko dena.			Izapideak hasi gabe.	Sartzen da
4	Dekretu-proiektua, etxeko hondakinen balorizazio energetikoaren ondoriozko zepak balorizatzeko jarduerari aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duena.		Instrukzio fasea. Aldez aurreko onarpen-agindua onartuta		Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, Aizkorri Arazko Naturagune Babestuko eta Kontserbazio Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duena eta Parke Naturalaren eta haren babes-eremu periferikoaren mugak aldatzen dituen.		Instrukzio fasea: Hasierako plana aurkeztuta.		Ez da sartzen
6	Dekretu-proiektua, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Egitamua aldatzeko dena.		Hasiera fasea: Jendaurreko informazioa eta txostenak.		Sartzen da



7	Dekretua eta Agindua aldatzea, Eraikuntza- eta eraipen-hondakinei eta lurak berrerabiltzeko eta balorizatzeko irizpideei buruzkoa.		Hasiera fasea. Prozedura hasteko agindua onartuta		Ez da sartzen
8	Dekretu-proiektua, Komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.		Amaiera eta onarpen fasea Gobernu Kontseiluari igorrita hark onar dezan.		Sartzen da
9	Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) handitzeko eta haren helburuak eta kontserbazio-neurriak egokitu eta eguneratzeko izendapen-dekretua aldatzea.		Amaiera eta onarpen fasea Gobernu Kontseiluari igorrita hark onar dezan.		Sartzen da
10	Dekretu-proiektua, Genetikoki Eraldatutako Organismoak kontrolatzeko Biosegurtasunaren Euskal Batzordea sortzen duena, genetikoki eraldatutako organismoak konfinatuta erabiltzeko eta nahita askatzeko baimenak komunikatzeko eta eskatzeko prozedura arautzen duena eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Baimen eta Komunikazioen Erregistroa sortzen duena.			Izapideak hasi gabe	Ez da sartzen

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauak (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa.	410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		

6. SEGURTASUN SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoen armak, beste baliabide tekniko eta defentsako batzuk eta horien guztien hornidura arautzen dituen.	24/2024 Dekretua, martxoaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoen armak, beste baliabide tekniko eta defentsako batzuk eta horien guztien hornidura arautzen dituen.			
2	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari baimena ematen diona «Euskalmet – Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.» sozietate anonimo publikoa sortu eta haren partaidetzak erosteko,.	29/2024 Dekretua, martxoaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari baimena ematen diona «Euskalmet – Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.» sozietate anonimo publikoa sortu eta haren partaidetzak erosteko.			
3	Dekretu-proiektua, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen.	34/2024 Dekretua, martxoaren 19koa, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen.			
4	Dekretu-proiektua, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 6/2021 Dekretua aldatzeko dena.	Haren eduki guztia Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretura eraman zen			
5	Dekretu-proiektua, poliziaren mugikortasunari buruzkoa.			Hasiera fasea: Testua idaztea.	Sartzen da
6	Dekretu-Proiektua, Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziiplina Araudia onartzen duen maiatzaren 3ko 79/1994 Dekretua aldatzeko dena.			Hasi gabe	Ez da sartzen

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauak (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025 UAP
1	Dekretu-proiektua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	318/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		
2	Dekretu-proiektua, zeinaren bidez laugarrenez aldatzen baita Ertzaintzako langileen 2011., 2012. eta 2013. urteetarako lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duen dekretua.	75/2024 Dekretua, ekainaren 18koa, zeinaren bidez laugarrenez aldatzen baita Ertzaintzako langileen 2011., 2012. eta 2013. urteetarako lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duen dekretua.		
3	Euskal autonomia erkidegoko polizia kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko erregelamendua onartzen duen apirilaren 4ko 58/2023 dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua		Amaiera eta onarpen fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidalitako espedientea	Sartzen da

7. HEZKUNTZA SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, aldatzeko dena (289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartearen “Musika-Eskola” direlako arautu gabeko berariazko musika- irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituen).	64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko musika eta dantza eskolei buruzkoa.			
2	Dekretu-proiektua, zeinaren bidez arautzen baita zer prozedurari jarraituko zaion Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan araubide bereziko kirol-ikasketak emango dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko eta emandako baimenak aldatu eta azkentzeko.		Amaiera eta onarpen fasea: Gobernu Kontseiluak onartzeko prest.		Sartzen da
3	Dekretu proiektua, unibertsitatez kanpoko irakas sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundearen egitura eta funtzioak arautzen dituen Dekretuaren aldaketarako		Instrukzio fasea: Eskatutako txostenen zain.		Sartzen da
4	Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleek hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan aniztasunari eman beharreko erantzunari buruzko Dekretu- proiektua	78/2024 Dekretua, ekainaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuteari buruzkoa.			
5	Dekretu-proiektua, Ingurune estrategikoen bultzatze eta garatzea “TKGUNE” Programaren erregulazioaren bitartez.		Instrukzio fasea: Eskatutako txostenen zain.	Izapidetze-denbora ikusita, proiektuak birplanteatu behar direla uste da, eta 2025eko planetik kanpo utziko dira.	Ez da sartzen
6	Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu-proiektua.		Instrukzio fasean. Eskatutako txostenen zain.		Ez da sartzen
7	Dekretu-proiektua, 46/2014 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituen, aldatzeko		Amaiera eta onarpen fasea: COJUAREN txostenaren zain.		Sartzen da



8	Dekretu-proiektua, Ikaskuntza Birtualen eta Digitalizatuen Lanbide Heziketako Zentro Integratua sortzen duena.		Instrukzio fasea: Txosten juridikoaren ostean aldaketan zain	Denbora luzea darama tramitazioan eta proiektua bera berrikusteko beharra ikusten da. 2025eko planetik kanpo utziko da.	Ez da sartzen
9	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Itunpeko Ikastetxe Pribatuetako Hezkuntza-Itunen Araubidea eta Ordainketa Eskuordetuaren Sistema Arautzen dituen Dekretu berria.		Instrukzio fasea: Eskatutako txostenen zain.		Sartzen da
10	Dekretu proiektua, 218/1997 Dekretua, zeinaren bidez urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Ordenazio Orokorreko Lege Organikoari dagozkion titulu akademiko eta profesional ez unibertsitarioen erregistroa sortzen duena, aldatzeko.	52/2024 Dekretua, apirilaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemako tituluak erregistratzeari edo emateko prozedurari buruzkoa.			.
11	Dekretu-proiektua, hezkuntza-sistemari laguntzeko oinarrizko egiturak eguneratzen dituen, horien antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.		Instrukzio fasea: Txostenak jaso ostean OCera igortzeko zain.		Sartzen da
12	Dekretu-proiektua, zeinaren bidez sei espezializazio-ikastaroren curriculumak ezartzen baitira (Eraikinen Informazioaren Modelaketa [BIM], 5G Sareen Implementazioa, Trenbideetako Señaleztapen- eta Telekomunikazio-sistemak, Audiodeskribapena eta Azpitolazioa, Adimen Artifiziala eta Big Data, eta Industria-mantentzearen Digitalizazioa), Euskal Autonomia Erkidegoan emateko.			Prestaketa fasea: araua idazten.	Sartzen da

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Lege-aurreproiektuak eta Dekretu-proiektuak2024ko UAPetik kanpo		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa.	381/2024 Dekretua, azaroaren 19koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		

8. ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Hirigintza estandarrak arautzen dituen Dekretua.		Amaiera eta onarpen fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena egin da.		Sartzen da
2	Kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzako, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzeko Dekretua.			Izapidetak hasi gabe.	Sartzen da
3	Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitza Foroa arautzen duen Dekretua.	Decreto 475/2024 de 17 de diciembre, de regulación del Foro de Urbanismo y Vivienda de Euskadi.			

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

	Arauak (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)	2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025 UAP
1	Dekretu-proiektua, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa.	411/2024 DEKRETUA, abenduaren 3koa, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		



9. OSASUN SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren menpeko zerbitzu erakundeetako profesionalen garapen profesionala arautzen duena.		Hasiera fasea: hasteko agindua onartuta/ alde aurreko onarpen-agindua.		Sartzen da
2	Dekretu-proiektua, Onkologikoa osasun- zentroa titulartasun publikoko baliabide gisa integratzeko baldintzak ezartzen dituena.		Instrukzio fasea: Informazio publikoa eta txostenak.		Sartzen da
3	Dekretu-proiektua, Osasun Publikoaren Euskal Erakundearen estatutuak onartzen dituena.			Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da
4	Dekretu-proiektua, Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren egitura, antolaketa, eginkizunak eta osaera ezartzen dituena.			Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, Osasun Saileko Aholku Batzordeen araubideari buruzko maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dena.			Ez da izapidetzen irizpide-aldaketagatik. Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legea indarrean sartzearen ondorioz, ez da beharrezkoa lege hori onartzea.	Ez da sartzen
6	Dekretu-proiektua, erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-araudia onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua aldatzeko edo ordeztzeko dena.			Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da
7	Dekretu-proiektua, abuztuaren 31ko 319/1999 Dekretua, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortu eta hura egiaztatzeko sistema arautzen duena, aldatzeko.			Ez da izapidetuko, irizpidea aldatu delako. Azkenik, dekretu hau ez da izapidetuko, Euskal	Ez da sartzen



				Autonomia Erkidegoan osasun-prestakuntza espezializatuko tutore nagusiak akreditatzeko eta berrakreditatzeko prozedurak arautzen dituen Agindua izapidetzen ari baita.	
8	Dekretu-proiektua, adikzioei buruzko informazio-sistema sortzen duena.		Amaiera eta onarpen fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuta.		Sartzen da
9	Dekretu-proiektua, farmazia- bulegoetako nutrizio- eta dietetika-atala arautzeko dena.		Amaiera eta onarpen fasea: Gobernu Kontseiluari igorrita hark onar dezan.		Sartzen da
10	Dekretu-proiektua, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa eta aurretiazko borondateen agiriak ematea arautzen dituen.	9/2024 Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa eta aurretiazko borondateen agiriak arautzen dituen.			

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

	Arauak (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)	2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025 UAP
1	Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretu-Proiektua.	319/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		
2	Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako farmazia-zerbitzuak antolatzen dituen irailaren 1eko 243/1992 Dekretua aldatzeko Dekretu-proiektua.		Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da
3	Kontsumo publikoko edateko uren fluorazioari buruzko martxoaren 1eko 49/1988 Dekretua indargabetzea.		Prestaketa fase: araua idazten.	Sartzen da

10. ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKA SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Tratu - berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren euskal lege-aurreproiektua.			Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da
2	Dekretu-proiektua, etxeko indarkeriaren edo sexuagatiko indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzuarena.			Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da
3	Dekretu-proiektua, Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duena.	48/2024 Dekretua, apirilaren 16koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildakoen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duena.			
4	Transexualen administrazio – dokumentazioa arautzen duen dekretu – proiektua.		Instrukzio fasea: Alegazioak eta txostenak		Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko uztailaren 30eko 126/2019 Dekretua aldatzekoa.		Instrukzio fasea: Alegazioak eta txostenak		Sartzen da
6	GLLe buruzko dekretu-proiektua (gizarte-larrialdietarako laguntzak)			Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da
7	Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretua aldatzea, edo amatasun- eta lanaldi-baimenak 18 astera luzatzeko eszedentziarako laguntzen dekretu berria.			Prestaketa fasea: araua idazten	Sartzen da

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauak (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025 UAP
1	Dekretu-proiektua, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	320/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		
2	Dekretua-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretua indargabetzen duena.	392/2024 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretua indargabetzen duena.		

11. MUGIKORTASUN JASANGARRI SAILA

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	382/2012 Dekretua, azaroaren 19koa, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		

12. ZIENTZIA, UNIBERTSITATEAK ETA BERRIKUNTZA SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Musikeneko instalazioak Musikeneko urteko programazioetan sartzen ez diren jardueretarako nola erabili arautzen duena.			Hasi gabe.	Ez da sartzen

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Euskal Autonomia Erkidegoko Konposizio, Zuzendaritza, Interpretazio eta Pedagogia espezialitateetan musikako goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituen Dekretua aldatzeko proiektua.	30 /2024 Dekretua, martxoaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Konposizio, Zuzendaritza, Interpretazio eta Pedagogia espezialitateetako musikako goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.		
2	Dekretu-proiektua, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa.	494/2024 Dekretua, abenduaren 23koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		

13. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, martxoaren 5ekoa, Turismo-gidarien Euskadiko Jarduerarena.	26/2024 Dekretua, martxoaren 5ekoa, Turismo-gidarien Euskadiko Jarduerarena.			
2	Dekretu-proiektua, bigarren eskuko ibilgailuen salerosketan kontsumitzaileen informazio-eskubidea arautzen duena.		Instrukzio fasea: entzunaldi publikoa amaituta.		Sartzen da
3	Dekretu-proiektua, balio akademiko ofiziala duen titulu bat lortzera bideratzen ez duten irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuetako erabiltzaileen informaziorako eta interes ekonomikoen babeserako eskubidea arautzen duena.		Instrukzio fasea: entzunaldi publikoa amaituta.		Sartzen da
4	Dekretu-proiektua, erabilera turistikoko etxebizitzei eta etxebizitza partikularretako logelei buruzko 101/2018 Dekretua aldatzen duena (landa-ingurunea).		Amaiera eta onarpen fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasotzeko zain		Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, kontsumoko erreklamazio-orriei eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa, erreklamazio eta salaketei erantzuteko prozedurari buruzko uztailaren 1eko 142/2014 Dekretua aldatzen duena.			Prestaketa fasea: Dekretuaren zirriborroa idatzita.	Sartzen da
6	Dekretu-proiektua, Euskadiko merkatarien elkarteen erregistroari buruzkoa.		Amaiera eta onarpen fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasotzeko zain		Sartzen da
7	Dekretu-proiektua, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretua aldatzen duena.			Prestaketa fasea: Dekretuaren zirriborroa idatzita.	Sartzen da



2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauk (lege-aurreproiektuak/dekretu-proiektuak)		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, Merkasaretza merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzekoa eta merkataritza-laguntzako zerbitzu-zorroa definitzekoa.		Instrukzio fasea: KEBren txostenaren zain.	Sartzen da

14. ELIKADURA, LANDA GARAPENA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025eko UAP
1	Dekretu-proiektua, portuetako udal-kontseiluak sortzen dena.	251/2024 Dekretua, irailaren 10ekoa, portuetako udal-kontseiluak sortzekoa.			
2	Dekretu-proiektua, nekazaritzatik eratorritako nitratoek urak kutsatzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudia eguneratu eta bateratzeko dena.			Prestaketa fasea: araua idazten.	Sartzen da
3	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategien Erregistroa eta ustiapen- koaderno elektronikoa arautzen dituen, eta ustiapen- koadernoari buruzko 203/2011 Dekretua eta 2014ko azaroaren 18ko Agindua indargabetzen dituen.			Ez da izapidetuko, irizpidea aldatu delako.	Ez da sartzen
4	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan abereen ongizaterako eta abeltzaintzako ustategien eta instalazioen antolamendu zooteknikorako baldintza higieniko sanitarioak arautzen duena.		Amaitzeko eta onartzeko fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuta		Sartzen da
5	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena. 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena.	66/2024 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa- eremuen karakterizazioa finkatzeko dena.			



6	Dekretu-proiektua, elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa.	57/2024 Dekretua, maiatzaren 7koa, elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa.			
7	Dekretu-proiektua, apirilaren 30ekoa, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa. baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa.	51/2024 Dekretua, apirilaren 30ekoa, hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzkoa.			
8	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautzekoa eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzekoa.	77/2024 Dekretua, ekainaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautu eta angularen arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duena.			
9	Dekretu-proiektua, Euskadi Gastronomia sariak arautzekoa.		Hasiera fasea: prozedura hasteko agindua onartuta/ aldez aurreko onarpen-Agindua.		Sartzen da
10	Dekretu-Proiektua, ehiza-lizentziari eta ehizatzeko gaitasunari buruzko uztailaren 29ko 160/2014 Dekretua aldatzeko dena.		Hasiera-fasea: prozedura hasteko agindua onartuta/ aldez aurreko onarpen-agindua.		Sartzen da
11	Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan jendaurreko ikuskizunetan edo jolas-jardueretan parte hartzen duten baina oraindik ongizatea arautu gabe duten animalien ongizatea arautzeko dena.		Instrukzio-fasea: txostenak eginda/jendaurrean jartzeko izapidea.		Sartzen da
12	Dekretu-proiektua, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren araubideari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa. erantzukizunpeko adierazpenaren araubideari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.	63/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren araubideari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.			
13	Dekretu-proiektua, Euskadiko Arraza Autoktonoen Katalogo Ofizialean ondare		Hasiera-fasea: prozedura hasteko agindua onartuta/ aldez aurreko onarpen-		Sartzen da



	genetiko eta etnologiko gisa aitortutako arrazak izendatzeko dena.		agindua.		
14	Erlezaintza antolatze deketu-proiektua.		Amaitzeko eta onartzeko fasea: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuta.		Sartzen da

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauk (Lege-proiektuak/Dekretuak) PAN 2024tik kanpo		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025eko UAP
1	Landareen Operadore Profesionalen Erregistroaren Dekretua		Hasiera-fasea: prozedura hasteko agindua onartuta/ aldez aurreko onarpen-agindua.	Sartzen da
2	Landa Garapenerako Euskal Sarearen dekretua		Hasiera-fasea: prozedura hasteko agindua onartuta/ aldez aurreko onarpen-agindua.	Sartzen da
3	Dekretu-proiektua, abenduaren 11koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	438/2024 Dekretua, abenduaren 11koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		



15. JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK SAILA

2024ko UAP Lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak		Onartuak	Izapidetzen. Egoera	Hasi gabe. Justifikazioa	2025 eko UAP
1	Dekretu-proiektua, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira espetxean daudenei, baldintzapean aske daudenei eta batzuen zein besteen senideei laguntza asistentzialak, irteera programatuak eta terapeutikoak egiteko laguntzak eta espetxean daudenei sariak eta pizgarriak emateko.	23/2024 Dekretua, otsailaren 27koa, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira espetxean daudenei, baldintzapean aske daudenei eta batzuen zein besteen senideei laguntza asistentzialak, irteera programatuak eta terapeutikoak egiteko laguntzak eta espetxean daudenei sariak eta pizgarriak emateko.			

2024 URTEKO ARAUGINTZA PLANETIK KANPO IZAPIDETZEN ARI DIREN BESTE ARAU BATZUK

Arauak (Lege-proiektuak/Dekretuak) PAN 2024tik kanpo		2024an onartuta	Onartu gabe. Egoera	2025 UAP
1	Dekretu-proiektua, Justizia eta Gizarte Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.	326/2024 Dekretua, azaroaren 5ekoa, Justizia eta Gizarte Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.		



ANEXO II

GRADO DE EJECUCIÓN DEL PLAN ANUAL NORMATIVO 2024 POR DEPARTAMENTOS

0. LEHENDAKARITZA

